

EAEko aurrekontuei begirako LAB sindikatuaren proposamena

2024ko azaroaren 25ean



1974 - 2024 • ZABALTZEN

AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Zerga sistemaren erreformaren beharra	6
3. Langileen aldeko politiketarako diru-partidak	7
3.1. Zaintza Sistema.....	7
3.2. Osasungintza	8
3.3. Hezkuntza	9
3.4. Etxebizitza	10
3.4. Pentsioak	10
3.4. Trantsizio ekosoziala	11

1. Sarrera

LAB sindikatuak, aurrekontuen gaineko sakoneko eztabaidari heltzeko borondatea agertzearekin batera, dokumentu honetan jaso dituen proposamen zehatzak aurkezten ditu 2025ean langileen aldeko politiketan eragin asmoz.

Gobernu berri honen aurrekontu proiektuarekin oso kritikoak gara, bai formei zein edukiei dagokienez. Jakina da aurrekontu proiektuak ez direla neutroak, modu desberdinean eragiten baitiete hainbat jendarte talderi edo herritarri. LABen iritziz, erroko aldaketarik egon ezean, jendartean eta langilerian ematen diren zapalkuntzak eta pribilegioak mantentzen eta betikotzen dira. Gobernuek, urteroko ariketa honen bidez, politika publikoei eman nahi zaien norabidea zehazten dute. Horrela, inbertsioak non egin behar diren eztabaidatzearekin batera, inbertsio horien norabidea eta lehentasunak finkatzen dituzte.

LABen ustez oso garrantzitsuak dira aurrekontuak. Batetik, politika publikoetan ikuspegi feminista, antirrazista eta klasekoan eragiteko baliatu behar direlako. Eta bestetik, administrazioak diru publikoarekin egiten duen kudeaketa egokia eta eraginkorra zehaztu behar dutelako. Eraiki nahi den jendarte-eredua definitzen dute, baita herrialde baten aberastasunaren birbanaketa ere.

Horregatik, kritika zorrotza egitearekin batera, LAB prest dago proposamenak egiteko eta langileoi dagozkigun gaietan negoziazioaren lanetan murgildu eta akordioak egiteko.

2. Zerga sistemaren erreformaren beharra

Diru inbertsioak bezain besteko garrantzia dauka diru bilketa egiteko gobernuek ezartzen dituzten ereduak, aurrekontuetarako diru sarreren oinarri baitira. LABen iritziz, diru bilketa politikek kapital errenten pribilegioekin amaitzen hasteko abiapuntu izan behar dute. Izan ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan diru bilketa nagusiki langileen bizkarrean zamatzen denez, eraldaketa sakona beharrezkoa da. LABen proposamena Enpresen irabazien gainean eta Sozietate Zergan benetako esku hartzea egitea da, egoera irauli eta progresiboa den zerga sistemari bide emateko. Lehentasunezko auzia da, soilik horrela erantzun ahalko diogulako langileen aldeko politikak aplikatu eta zerbitzu publiko indartsuak garatzeko erronkei.

- Zerga sistemaren erreformarako, LAB sindikatuarentzat, ezinbestekoa da hiru neurri aplikatzea:
 - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, tasa bakarra ezartzea kapital- eta lan-errentetarako, eta gehienezko tasa % 60ra igotzea. Ezin da izan langileok enpresek baino ekarpen gehiago egitea.
 - Sozietateen gaineko zergan, kenkari eta pizgarri fiskal guztiak kentzea eta % 35eko tasa nominala ezartzea, enpresa-mozkinek sozietateari ekarpena egin diezaioten.
 - Kapital-errentei % 1 eta % 10 arteko errenergua ezartzea.
- EAEn 2023 urtean izan dugun presio fiskala %32,7koa izan da, EBn %40,6koa izan den bitartean. EBko presio fiskala izango bagenu, 7.219.547 € gehiago izango genituzke gure sistema publikoa indartzeko eta aberastasunaren birbanaketan eragiteko.

3. Langileen aldeko politiketarako diru-partidak

3.1. Zaintza Sistema

INBERTSIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • EAEko Zaintza Sistema Publikoa eraikitzen hasteko Legea, planak eta hauen inbertsioa. Gizarte Zerbitzuen legearen baitan dauden zaintza zerbitzuetako azpikontrataturiko langileen lan baldintzak eta ratioak hobetzeko ere. • Merkantilizaturiko zaintza-lanen gaineko Ikuskaritza Unitatea sortzeko inbertsioa. • Zaintza sistema publikoa egituratze bidean etxeko-langileen ratioak eta lan-baldintzak hobetzeko diru-partidak: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Benetako jardunaldiaren arauketa ◦ Soldata osagarriak • 22.400 €ko soldataren azpitik dauden edozein zaintza zerbitzu jasotzen duten erabiltzaileei zerbitzua dohainik eskaintzeko udal eta aldundiei laguntzeko diru-laguntzak • EAEko Enplegu Zentro Bereziako langileen sektoreko lehen lan-hitzarmenerako inbertsioa. • Telelaguntza publikatzeko baliabide plana.
MOLDATU BEHARREKO DIRU PARTIDAK	<ul style="list-style-type: none"> • AHTri bideraturikoa, 67.335.000 €. Ez dezagun ahaztu 2008tik hona 2.337.441.856 € gastatu edo bideratu direla AHTra. • Goi-kargudun gehiago egotea. Goi karguen gastua %18,52 handitu da, Jaurlaritzako eta administrazio orokorreko goi-kargudunen gehikuntzak 6.177.000 € euroko gastua suposatzen duelarik.

3.2. Osasungintza

• Osasungintzarako bideratutako kopurua %4,38 handitu da aurrekontu proiektu proposamenean. Aurrekontuen partidarik handiena da, eta aurrekontuen %34,74 suposatzen du. BPGrekiko %5,13 suposatuko luke, Europar Batasuneko azken urteetako (2019, pandemia aurretiko datua) batz besteko gastua BPGrekiko %9,9 baino handiagoa izan denean. Zerga-sistema progresiboago batekin, non Europa mailako BPGrekiko batz besteko gastua egingo bagene, 4.742.741.424 € gehiago izango genituzke Osasun publikoan gastatzeko.

<p>INBERTSIOAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun Sistema publikoa indartzeko; bereziki Lehen Mailako Arreta (osasunari ematen zaion aurrekontuaren %25 lehen mailako arretarako). Horretaz gain, behin-behinekotasuna jaisteko salbuespenezko egonkortze neurrietarako, plantilla dimentsionatzeko, mediku-erizain ratioak gutxitzeko eta zerbitzu-zorroa zabaltzeko. • Osasun mentaleko zerbitzua publikotik indartzeko baliabide gehigarriak • Anbulantziak publikatzeko plana eta zerbitzurako behar den inbertsioa.
<p>MOLDATU BEHARREKO DIRU PARTIDAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Osasungintzari bideraturiko sailak langile propioz egin ditzakeen lanak ez kanporatzea. Orain arte, LAB sindikatuak 194.000.000 € gelditu ditu. • Osakidetzak modu ezberdinetan pribatizaturik -hitzarmenen, itunen, azpikontratazioen, autokontzertazioaren bidez- dituen lan guztiek osasungintzara bideraturiko %5a ez gainditzea. • Osasungintza pribatura bideraturikoa. Aurreko urtean baino 7.319.000 € gehiago gastatuko da bestelako enpresetan. 0 euro bideratu behar dira.

3.3. Hezkuntza

- Hezkuntzara bideratutako kopurua %4,17 handitu da, aurrekontuen %24,44 suposatzen duelarik. BPGrekiko %3,61 suposatuko luke, eta Europar Batasuneko azken urteetan batz besteko gastua BPGrekiko %6,6 baino handiagoa izan denean. Europa mailako BPGrekiko batz bestekoaren hainako gastua izango bagenu, zerga sistema progresiboago batean, **2.974.214.246 €** izango genituzke hezkuntzan gastatzeko.
- LABek 2023ko ekainaren 1ean sinatu zuen Akordio Laboralaren neurriak inplementatzeko diru nahikoa izatea.

INBERTSIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Eskola Publikoa eta Haurreskolak Partzuergo Publikoa sistemaren ardatz izateko inbertsioa gehitu: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Azpiegituretako inbertsioa modu nabarmenean handitu, sukalde propioak eraikitzea bideratu beharrekoa barne. ◦ Langileen kolektibo guztien lan-baldintzak hobetzeko neurrietan ◦ Baliabide gehigarrietan. Horien artean euskararen normalizazioa hezkuntzan bultzatzeko hizkuntza normalkuntzarako koordinatzaileak eskola guztietan. ◦ Hezkuntzako langile guztiak euskalduntzeko planetan. • Azpikontraturiko eremuak publikifikatzeko-planak. Lehentasunez jangela, garbiketa eta garraioa. • EHUren finantzazioa BPGren %1a gutxienez izateko eta ordezeko irakasle prekarioen egoera konpontzeko inbertsio nahikoa
MOLDATU BEHARREKO DIRU PARTIDAK	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza sistemako sare publikoko zein sare itunduko ikastetxe guztien kontrol publikorako auditoretza unitatearen sorrera eta diru-kontuak era gardenean publiko egiteko plataforma. • Itunpeko sareko bi eremuetan, Gizarte Ekimenean eta Ikastoletan diru-publikoa jasotzen duten ikastetxeek Hezkuntza Legeak debekatzen dituen kuotak kobratuz gero, kontzertuak zein diru-laguntzak moztea. • 0-3 pribatuari ematen zaion diru-laguntza ezabatu. 16.405.000 €

3.4. Etxebizitza

INBERTSIOAK	<ul style="list-style-type: none">• Etxebizitza babestua erosi eta alokairuan eskaintzeko. Ez da posible alokairuan dagoen burbuila hauspotzen jarraitzea. Diru laguntza hauek zuzenean etxebizitzarekin negozioa egiten dutenentzat doaz, eta hala ere, etxe unitate askotan haien diru-sarreraren %30 baino gehiago alokairua ordaintzera doa.• Etxebizitza parke publikoa hedatzeko inbertsioa egiteko. Merkatu librerara igaroko diren etxebizitza guztiak erosteko diru partida zehatza
MOLDATU BEHARREKO DIRU PARTIDAK	<ul style="list-style-type: none">• Dagoen etxebizitza parkean publikoaren parte-hartzea handitu behar da eta bi alokairu mota eskaini, babes sozialekoa eta alokairu normala. 11.400.000 € bideratu dira 2024ko diru laguntzak alokairua sustatzeko.• Alokairu sustapenak erosteko Alokabidera bideratutako 34.336.935 €.• Alokatailei begirako gastua, Bizigune programa (41.000.000 €), ordaintzeko lerroa, etxebizitza hutsak mobilizatzeko estrategia presio fiskalaren bidez izan behar da, ez pizgarrien bidez.

3.5. Pentsioak

INBERTSIOAK	<ul style="list-style-type: none">• Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak proposaturiko egiturazko pentsio osagarria gauzatzeko. 300.000.000 €.
MOLDATU BEHARREKO DIRU PARTIDAK	<ul style="list-style-type: none">• Egungo pentsioen osagarritzea DSBEren bidez egiten den neurrian, ekarpen hau moldatu beharko litzateke.

3.6. Trantsizio ekosoziala

INBERTSIOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Krisian dauden edota langile batzordeen eskariz eraldaketa produktiboa gauzatzeko erosketa publikoa gauzatzeko funtsa
MOLDATU BEHARREKO DIRU PARTIDAK	<ul style="list-style-type: none"> • Deskarbonizazioa (260.000.000 €), enpresen errotzea (Finkatuz 150.000.000 €) eta akzioak, maileguak eta kredituetarako Finantzen Euskal Institutuko (92.000.000 €) aurrekontuetako lerroetan, birmoldaketa produktiboari begira langile batzordeen eskariak jasotzeko aukera irekitzea, diru publikoa enpresariei ez ezik, langileen esku ere jartzeko. Honek trantsizio ekologiko justua eta langileok protagonista izateko aukerak irekitzen ditu. • Finantzen Euskal Institutuak 5. helburu bat izatea, enpresetako langile batzordeek egindako eskarien araberako erosketa publikoak egin eta trantsizio ekosoziala norabidean jarri ditzaten.